



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain



zuzendariari@egunkaria.com



943 300 228

**OHARRA:** Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-  
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea  
eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak  
bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari

**Xavier Pastor,  
Greenpeaceko buruari**

Greenpeaceko bazkide naiz 1987tik. Espaniako Estatuan egun zuk gidatzen duzun erakunde-  
dean izena ematera eraman ninduen arrazoi-  
etako bat, Greenpeacek alderdi politikoe-  
kin loturarik ez izatea izan zen. Hamabi urte  
hauetan bere sinesgarritasuna gehitu egin  
dela ziurtatu dut, beste faktore batzuren  
arte, ingurugiro-interesak jarri dituelako  
alderdi politiko edota enpresen interesen  
aurretik.

Uler dezaket Greenpeacek ingurugiroaren  
aldeko borroka eta giza eskubideen defentsa  
uztatu nahi izatea, uler dezaket ingurunearen  
arloan eskarmenturik ez duen pertsona bat  
aukeratzea nazioarteko presidentziarako,  
baina akats larria deritzot politikari bat  
aukeratzeari, edozein izanda bere alderdia  
edo ideologia, eta are gutxiago Jose Maria  
Mendiluceren kasuan bezala, ihardunean eta  
europarlamentari-soldatari atxikita. Horrez  
gainera, Greenpeacek ez dizkie bazkideei  
behar bezala azaldu izendapenaren arazo-  
iak eta ez du aukeraketan bazkideen esku-  
hartzea baimendu.

Ez dira inoiz falta izan Greenpeaceko  
arduradunen eta PSOEkoen arteko harreman  
onei buruzko zurrumu eta albisterik, baina  
Jose Maria Mendiluceren izendapenak baieztatu  
egin du susmoa. Izan ere, iraingarria da  
Mendiluce giza eskubideen aldeko adierazpenak  
egiten gogoratzea, estatu terrorismo ekintzak  
baimendu, eratu eta finantziatzeagatik  
kondenatuak izan diren gobernu arduradunak  
omendu dituen al-

derdi politiko baten zerrendetan zegoela eta  
berorren aldeko botua eskatzen zuen bitartean.  
PSOEko militante eta jarraitzaileentzat salbu,  
Jose Maria Mendiluceren sinesgarritasuna hutsa  
da, eta zeurea, Pastor jauna, gero eta eskasagoa.  
Guzti horrengatik, zure berehalako dimisioa eta  
Mendiluce jaunaren kargugabetzea eskatzen  
dizkizut, Greenpeace izena gehiago zikindu  
baino lehen. **Joseba Eiguren** • AUDIO (ARABA)

**Duintasuna**

Nonbait mina egiten digu Josetxo Arizkuren  
bezalako kide eta laguna gaur egun bizi den  
egoera gorrian egoteak.

Gogorra egiten zaigu guri, berekin batera  
gose grebari lehenengo txandan ekin genioi,  
zein kolektibo osoari; gogorra egin behar  
zaizue zuei, Euskal Preso Politikoen kolektibo-  
aren eskakizun eta borrokarekin sentsibilitate  
edota atxikimendua duzenoi. Lerro hauen  
bitartez goraiatu nahiko genuke borroka  
honetan Euskal Preso Politikoen kolektiboa  
ordezkatzu Josetxo erakusten ari den indarra,  
grina eta duintasuna. Horrelakoan aurrean  
txapela burutik kentzea besterik ezin digu  
egin.

Bestetik azpimarratu nahiko genuke Josetxok  
hartu duen erabakiari zor diogun errespetua.  
Gose greba hau hasi aurretik eraman genuen  
eztabaidan mugagabetasunaren gordintasuna  
oso neurtua eta baloratua izan zen eta,  
horrengatik, kolektiboak atera zuen agiriak  
zera zioen: «norberaren ahalmenak mugatuko  
du gose grebaren luzapena».

Era berean, salatu nahi dugu Frantziako  
Estatuak preso dauden gure kideen aurka  
duen jarraera bortxatzailea. Estatu horrek  
maiz goraiatzen du nazien aurka klandestinitatean,  
erresistentzian eramandako borroka. Gaur  
egun, aitzitik, beraiek borrokatu zuten etsai  
horien aurkatik ikasitakoa euskal preso politikoei  
ezartzen dieten erregimena judikaturretatik  
hasita espetxeko azken kartzelara, beraien  
gurasoek deitzen zuten *les bosac*-ekin konparatu  
dute ezertan enbidiatu behar.

Eta idatzi honi amaiera emateko euskal  
gizartearen arretari deia egin nahiko genioke.  
Gose grebalarik bakoitzaren ahalmenak epe eta  
muga ezberdinak izan ditzake. Beraz, eutsi  
diezaiogun borrokari, lagunak, gose grebalarik  
guztiak, lehenagotik hasita azkeneraino, zuen  
elkartasuna behar dute eta.

Borroka honekin kolektiboaren konpromisoak  
urrats handia eman du. Bakoitzak berea egin  
behar du. Horrengatik animatzen zaituztegu  
borroka honetan parte har dezazuen bakoitzak  
ahal duena emateko. **Jose Luis Gallastegi-Mikel Egibar** • (Euskal preso politikoa-  
k Arantzazuko Ama ospitaletik)

**Atxilotuez kezkatutik**

Oraintsu jakin dugunez, ikastetxe honetako  
hiru ikasle ohi, Julen Larrinaga, Endika Lejarzegi  
eta Ibai Aginaga atxiloturik daude Madril-  
en. Aixerrota ikastetxeak bere kezka azaldu  
nahi du gazte horien egoeraz eta espero du  
denaren gainetik dagozkien eskubideak errespetatuak  
izatea. **Jokin de Pedro** (Aixerrota ikastetxe-  
ko zuzendaritza) • GETXO

**galdeiozu...**



**Odon Elorza**  
DONOSTIAKO ALKATEA

**Donostia-Behobia lasterketa zela eta, ika-mika gogorra izan zenuen Fortuna taldearekin. Hurrengo urterako konponbiderik izango al du helmugaren auziak? Bulebarreko trafikoa arazoaren argudioa ez al da aitzakia hutsa?**

Aitor Etxeberria[Lasarte]

■ **AITZAKIA EZ DA** inondik ere. Interes orokorra defenditu behar dut alkate naizen aldetik. Interes orokorra, Alde Zaharreko, Portuko eta Paseo Berriko errepideak mozten dituen probarekin uztartu behar dut. Bateagarri bihurtu. Ez da ahaztu behar lau aparkaleku ere toki horretan daudela, eta abar. Ez da kapritxo bat, benetan. Hitz egin dut Fortuna taldeko lehendakariarekin 2.000 urteko proba ongi lotzeko. Fortunak izugarritzko lana egiten du; ez dut inolako kezarik. Horrengatik denentzat baliogarri izango den irtenbidea aurkituko dugu.

Abenduaren 28tik aurrera  
**Jose Maria Satrustegi**  
• EUSKALTZAINA

izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.  
Bidali zure galderak ordurako.

• MONTXO •

